Ez ginen atzera egiteko jaio
Frente al fascismo, feminismo.

Azaroaren 25 honetan arrazoiak ez zaizkigu falta kaleak aldarriz, haserrez, amorruz, eta garrasi ozenez betetzeko. Lehenik, azken urtean Euskal Herrian eraildako 5 emakumeak gogora ekarri nahi ditugu; Tatiana, Amaia, Arelys, Saida eta Kalie. Indarrez eta goxotasunez beteriko besarkada bero bana haien senide eta lagunei Euskal Herriko Mugimendu Feministaren izenean. Ez zaudete bakarrik eta ez dugu gertatutakoa ahaztuko. Memorian bizirik mantenduko dugu. Memoria kolektiboa borrokarako tresna gisa ulertzen baitugu; oroitzeko, osatzeko, aitortzeko, erreparatzeko eta borrokarako.

Bide horretan, gaurkoan, Euskal Herriko Emakumeen* Mundu Martxak abenduaren 11n herriz-herri egingo duen memoria kolektiboa indartzeko ariketa erraldoia sustatzeko eta indartzeko deia egiten dugu. Indarkeria matxistari aurre egiteko urrats bat gehiago izan dadila, instituzioei ardura har dezaten exijitzearekin batera.

Bestalde, doakiela, beste besarkada bana munduko hamaika txokotan borrokan eta erresistentzian dabiltzan emakume* eta sexu-genero disidente guztiei. Bereziki, Palestinara. Genozidioarekin amaitu!

Ez dira garai errazak. Sistema zisheteropatriarkal, kolonial eta kapitalistak egitura guztiak martxan ditu zapalkuntzak betikotzeko, eta beraz, indarkeriak betikotzeko. Gorputzetan nahiz lurraldeetan. Aspalditik diogu hiru zapalkuntza sistema horien ondorioz, emakumeak*, migratu eta arrazializatuak eta sexu-genero disidenteak garela kolpatuenak. Eta baieztapen hori geroz eta era ageriagoan ari da materializatzen faxismoak, eskuin muturrak nahiz eskuineko hainbat mugimendutan ikus daitezken jarrera eta diskurtso erreakzionarioen bitartez.

Horregatik guztiagatik, gu ez gara etxean gelditzen ari. Kaleak hartzen jarraitzen dugu. Azaroaren 5ean, Ipar Euskal Herrian, greba eguna izan genuen bizitzaren garestitzearen aurka, Hego Euskal Herrian, azaroaren 11n, etxebizitza eskubidearen alde hartu genituen eta azaroaren 25ean, Euskal Herri osoan indarkeria matxistaren aurka hartu ditugu.

Ez ginelako atzera egiteko jaio. Etor daitekenaren aurrean autodefentsa feminista aldarrikatzen dugu gure borrokarako tresna gisa; erasoen aurrean, eskubideen ukazioaren aurrean, zerbitzu publikoen pribatizazioaren aurrean, gure bizitzekin negozioa egiten dabiltzanen aurrean.

Aliantzak egiteko garaia da, antolatzekoa. Askotariko subjektu eta borroken aitortzatik abiatuta ekin behar diogu borrokari, nork bere lekutik eta elkarrekin. Zapalkuntzak izendatuz eta etsaiari aurre eginez. Ez gara etxean geratuko. Euskal Herriko Mugimendu Feministako kideok geroz eta indar gehiago batzen ari gara, eta berriro diogu: ez ginen atzera egiteko jaio!

Indarkeria erreproduzitzen ari diren eta indarkeria matxistarekin amaitzeko baliabiderik jartzen ez duten instituzioen aurka antolatuko gara, anaidia sostengatzen ari diren gizonen aurka antolatuko gara eta antifeminismoa antolatzen ari direnen aurka antolatuko gara. Sareak sortuz eta aurre eginez. Askotariko indarkeriek gurutzatuta bizi beharko ez diren
bizitzen alde.

Faxismoari feminismoz erantzungo diogu.
¡Frente al fascismo, feminismo!
Gora borroka feminista!
Gora Euskal Herriko Mugimendu Feminista!